

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**2/2023 Foru Agindua, urtarrilaren 3koa. Aldatzea abenduaren 20ko 772/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 190 eredu, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarreraren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak, sarietak eta errenta egozketa batzuenak) urteko laburpenarena. Horrez gain, diseinu fisiko eta logikoak eta lanaren etekinenak, jarduera ekonomikoenak eta sarietak ziurtagiriari buruzko 10-T ereduak ordenadorez zuzenean irakurtzeko moduko fitxategiak jartzeko**

Zenbait aldaketa egiten dira abenduaren 20ko 772/2021 Foru Aginduan, zeinaren bidez onesten baita 190 eredu, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako atxikipen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren aitortzen dena (lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinak, sariak eta ondare-irabazi eta errenta-egozketa jakin batzuk), batez ere argiago egiteko helburuaz eta gainerako zerga-administrazioekin informazio truke egokia errazteko, eta, ondorioz, zerga-kudeaketa hobetzeko.

Horren ondorioz, beharrezkoa da 190 eredu hartzaileren erregistro diseinuen "A" gakoak idatzita dagoen era aldatzea, ondoko hau eransteko: langilearen erabaki baten ondorio diren eta haren zerga-oinarria murrizten duten pentsio plan, gizarte aurreikuspeneko mutualitate eta enpresako gizarte aurreikuspeneko planetara enpresak egindako diru ekarpenak ez direla eredu honetan jaso behar, nahiz eta 345 eredu (borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, planen, pentsio funtsen, sistema alternatiboen, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen, aurreikuspen-plan aseguratuen, aurrezki sistematikoko banakako planen, enpresako gizarte-aurreikuspeneko planen eta mendekotasun-aseguruen urteko aitortzen) sartu behar diren.

Halaber, bizitzeko gutxieneko diru sarreraren ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean araututako bizitzeko gutxieneko diru sarreraren prestazioari dagokionez (hori 190 ereduak ere aitortu behar da), ikusi da komenigarria dela bertan adieraztea "bizikidetzaren unitatearen titularrak" nor den, zeren eta kasu askotan hura ez baitator bat prestazioaren hartzaileren identitatearekin, ez eta adingabearen ordezkariaren identitatearekin ere. Era berean, beharrezkotzat jotzen da eremu berri bat sartzeko, bizitzeko gutxieneko diru sarreraren prestazioaren barruan, ekitaldian ordaindutako edozein hilekotan, abenduaren 20ko 19/2021 Legean ezartzen den "haurrentzako laguntza osagarriari" dagozkion diru kopuruak sartzen diren kasuak identifikatzeko.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dogozkidan ahalmenak erabiliz, hau,

#### XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 20ko 772/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 190 eredu, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarreraren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak, sarietak eta errenta egozketa batzuenak) urteko laburpenarena. Horrez gain, diseinu fisiko eta logikoak eta lanaren etekinenak, jarduera ekonomikoenak eta sarietak ziurtagiriari buruzko 10-T ereduak ordenadorez zuzenean irakurtzeko moduko fitxategiak jartzeko.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 20ko 772/2021 Foru Aginduari:

Bat. Aldatzen da "hartutako kopuruaren gakoak" eremuaren azalpena, 78 posizioa duena foru aginduan II. eranskinean jasotzen diren 190 ereduak diseinu fisiko eta logikoetan 2 motako erregistroan (hartzaileren erregistroa). A gakoaren (Lanaren etekinak. Besteren konturako langileak, oro har) hirugarren paragrafoari idazketa berri emanez, honela idatzita geratuko da:

“Salbuespena: lanaren etekin batzuk ez dira sartu behar 190 ereduan, hain zuzen ere gauzatan jasotzen diren ordainsariak, baldin eta zergaren araudiko 78.j) artikulua arabera ez badago konturako sarrerarik egin beharrik (pentsio planen, enpresen gizarte aurreikuspeneko planen eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateen sustatzaileek eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek ordaindutako kontribuzioak, bai eta langilearen erabaki baten ondoriozko gizarte aurreikuspeneko sistema horiei egindako ekarpenak badira ere, zerga oinarri orokorra murrizten dutenak). Nolanahi ere, kontzeptu horien datuak 345 ereduan adierazi behar dira”

“A” gakoaren gainerako edukiak ez dira aldatuko.

Bi. Aldatzen da “datu gehigarriak” eremuaren azalpena, 153tik 254ra bitarteko posizioak dituen foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 190 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (hartailearen erregistroa), haren edukia hau da:

“Datu gehigarriak: A, B, C, E.01 eta L.29 gakoetan baino ez”

Hiru. Eremu berri bat gehitzen da “bizikidetzaren unitatearen titularraren IFZ”; 158tik 166ra bitarteko posizioak dituen foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 190 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (hartailearen erregistroa), honela geratzen da:

“Bizikidetzaren unitatearen titularraren IFZ”

L.29 gakoari dagozkion hartukizunak soilik.

Nahitaez bete beharreko eremua, “bizikidetzaren titularraren IFZ” eremua 1 zenbakiarekin adierazitakoa denean. Kasu horretan, bizikidetzaren pertsona fisiko titularraren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) jasoko da.

Eremu hau ez da izan behar “aitortzailearen IFZ” eremua eta “hartailearen IFZ” eremuaren berdina.

Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da, kontrol karakterea azken posizioan jarri behar da, eta ezkerreko posizioak zeroz bete behar dira.

Gainerako kasuetan, eremu hau hutsuneekin beteko da.

Lau. Zenbakizko eremu berri bat gehitzen da “bizikidetzaren titularraren IFZ”; 169 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 190 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (hartailearen erregistroa), honela geratzen da:

“Bizikidetzaren titularraren IFZ”

L.29 gakoari dagozkion hartukizunak soilik.

Eremu honetan ondoren adierazten den zenbakizko kodea jasoko da, honako zerrenda honen arabera:

Hartailea elkarbizitza unitatearen titularraren bada.

Hartailea elkarbizitza unitatearen titularraren ez bada. Kasu horretan, nahitaez bete behar da “bizikidetzaren unitatearen titularraren IFZ”

Bost. Eremu berri bat gehitzen da “haurrentzako laguntza osagarria”; 322tik 323ra bitarteko posizioak dituen foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 190 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (hartailearen erregistroa), honela geratzen da (aldi berean “zuriuneak” eremuaren posizioak eguneratzen dira):

| POSIZIOAK | IZAERA    | EREMUEN AZALPENA   |
|-----------|-----------|--|
| 322-323   | Numerikoa | HAURRENTZAKO LAGUNTZA OSAGARRIA<br>Datu gehigarria, L.29 gakoari dagozkion prestazioetarako soilik<br>Eremu honetan zenbakizko kodea adierazi behar da nahitaez, honako zerrenda honen arabera:<br>1 Ordaindutako prestazioan sartzen badira, ekitaldian ordaindutako hilekoetako edozeinetan, bizitzeko gutxieneko diru sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean jasotako haurrentzako laguntzaren osagarriari dagozkion zenbatekoak<br>2 Ordaindutako prestazioan sartzen ez badira, ekitaldian ordaindutako hilekoetako edozeinetan, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean jasotako haurrentzako laguntzaren osagarriari dagozkion zenbatekoak |
| 324-500   | —         | ZURIUNEAK  |

#### Azken xedapena

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2022. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 3a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*  
**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**